

STM

donostiakultura.com



San Telmo Museoa

Zuloaga plaza 1
20003 Donostia – San Sebastián
Telefonoa: 943 48 15 80
santelmo@donostia.org
www.santelmomuseoa.com

San Telmo Museoa

BASERRIA

Irakaslearen gida



Erakunde laguntzaileak:



Patrono pribatuak:



Helburua

Aurkezten dizugun material didaktiko honek baserriko lanak eta haien eboluzioa (tradizioa ere fenomeno dinamikoa den heinean) ezagutaraztea du helburu nagusi, betiere Museoko ondarea oinarri eta gidari hartuta.

Hartzaileak

Lehen Hezkuntzako lehen, bigarren eta hirugarren zikloko ikasleak.

Metodologia

Sei atal jorratzen dira:

- Baserriaren eboluzioa eta sukaldea
- Ehungintza eta baserritar giroa
- Artzaintza eta bereziki gaztagintza
- Nekazaritza eta abeltzaintza
- Baserria arte bilakatuta I
- Baserria arte bilakatuta II

Ikasleek talde txikietan (launaka-edo) lan egingo dute.

Talde bakoitzak dagozkion orri didaktikoak beteko ditu; hartara, informazioa duen espazioa aurkitu behar duenez, Museoaren goiko klaustroan zehar mugituko da, batez ere koruan eta pinakotekan.

Irakasleak, orri didaktiko hauek beteta izateaz gain, Museoko pertsona baten laguntza ere izango du, eskaera egiterakoan hala hitzartu bada.

Iraupena

Ordubete.

Hezkuntza Tailerrean euskal egutegi tradizionalari buruzko ariketa batekin luza daiteke beste ordu erdiz (eskaera-orrian aldeztatik adierazi behar).



1. ARIKETAREN HELBURUA

Denboraren kontzeptua sartzea, baserriaren baitan ematen diren aldaketak ulertarazteko: berezitasunak berezitasun, ezin da haren eboluzioa ulertu dagokion testuinguruan txertatu gabe.

BASERRITARRAK: baso ondoko herritarrak

Baserriari buruzko ikus-entzunezkoan, atean gurutzeak eta eguzki-loreak ikusten dira.




Zertarako jarriko zituzten?

- Apaintzeko
- Sorgin eta halakoetatik babesteko
- Gainerako baserrietatik bereizteko

Urteak joan, urteak etorri

Baserrietan, beste gauzetan bezala, denboraren poderioz aldaketak gertatzen dira, eta hala izaten jarraitzen du gaur egun ere: adibidez, ikus-entzunezkoaren aita “modernoak” badaki idazten, jakina... baina ordenagailu eramangarria alabak erabiltzen du.

- Lot itzazu gezien bidez lau garraiobide hauek beren datekin:



Baserria bizileku hutsa baino gehiago izan da beti: ukuilu, biltegi, lan egiteko toki bat ere bai.

- Ordena itzazu, zaharretik berrienera, jardunbide hauek:

- ___ Nekazaritza eta abeltzaintza
- ___ Baserriko lana eta fabrikakoa batera
- ___ Nekazal turismoa



2. ARIKETAREN HELBURUA

Sukaldea elkarren artean egoteko etxeko espazio nagusia da. Ez da pobrea, baina soila, elementu bakoitzak bere funtzioa betetzen baitu (apaindurak plater batzuetan bakarrik ikus daitezke).

SUKALDEA: suaren aldea

Argazki honen laguntzaz, bete itzazu hurrengo orriko taularen hutsuneak. Zenbait kasutan, jarraian emandako hitzak erabiliz bete beharko dituzu hutsuneak eta bestetan, falta den objektua marraztu beharko duzu.




Taulan sartu beharreko hitzak:

- Irina oratzeko
- Zura
- Sehaska
- Zizeilua
- Buztina
- Ohe-berogailua
- Ura iturri edo putzutik ekartzeko


Taulan marraztu beharrekoak:



2. ilara



6. ilara



9. ilara



Objektua	Materiala	Izena	Erabilera
	Zura	Oramahaia	<i>Irina oratzeko</i>
	Burdina	Zartagina	Bi arrautza batera frijitzeko
	<i>Buztina</i>	Pegarra	Ura iturri edo putzutik ekartzeko
	Kobrea	<i>Ohe-berogailua</i>	Barruan ikatz piztuak sartu eta oheratu aurretik maindireak berotzeko
	<i>Zura</i>	Gatzontzia	Gatza gordetzeko
	Burdina	Danbolina	Gaztainak erretzeko
	Zura eta letoia	Suila edo ferreta	<i>Ura iturri edo putzutik ekartzeko</i>
	Zura	<i>Sehaska</i>	Ume txikiek lo egiteko
	Zura	<i>Aulkia</i>	Esertzeko
	Zura	<i>Zizeilu</i> (eserleku mota bat. "Escaño" izendatzen dute Aragoiko Pirinioetan)	Mahai altxagarria duen aulki luzea, bizkarralde altukoa, hotzetik babestearren



3. ARIKETAREN HELBURUA

- Emakumeen lana, familiaren ekonomian funtsezkoa izan arren maiz atzendua izaten dena, nabarmen uztea.
- Gaur egun oso eskura dugun zerbait, arropa, oso zaila zela lortzea nabarmentzea, dena etxean egiten zen eta.

EHUNGINTZA: Lihoaren atsekabeak, amaigabeak

Emakumeek etxerako eta kanpoan saltzeko ehunak eta jantziak egiten zituzten: maindireak, alkandorak, mahai-zapiak... Ardiari ilea moztetik edo lihoa eraitetik (Euskal Herrian ez zegoen kotoi, zeta edo beste ehun gairik) galtzetinak edo alkandora janzeraino, hamaika lan egin behar izaten zen.

Hemengo objektuen izena idatzi eta lot itzazu hauetariko bakoitza ARTILEAREN edota LIHOAREN lanarekin.

Objektua	Izena	Artilea	Lihoa
	Lixiba egitekoa (larruzko ontzian arropa jarri, eta ganean, maindire batean, errautsa: errautsa ur irakinaz iragazi eta lixibatuz arropa zikina garbi eta zuri geratzen zen)		X
	Txaratilea (artilezko edo zaldi zurdazko haria bihurtzeko)	X	
	Gorua (liho edo artile mordoa hari bihurtzeko)	X	X
	Karda (artilea harrotu egiten du, bi karden artean igurtzita, gero mordoa errazago bihurtzeka dadin hari)	X	
	Txarrantxa (landare-zuntzak behin eta berriro orrazten dira iltzeen artean, haritan ireki daitezen)		X



4. ARIKETAREN HELBURUA

- Baserriko bizimoduaren inguruan ikuspegi zabala eman, bertan egindako eguneroko lanez gain: familia, aisia, kultura...
- Behaketa sustatu eta egun ikasleentzat ohikoak ez diren txuri beltzean egindako argazkien balioa agerian jarri
- Iraganeko eta egungo bizimoduak konparatu

BASERRIKO BIZIMODUA: lan asko, baina dena ez da lana

Familia:

Bila ezazu argazkietan familia baserritar bat: zenbat kide dira?

4

8

16 (aitona behi-parearekin eta amona eserita bi bilobarekin; aita eskaileran eta ama eskuarekin; hiru izeba ezkongabe balkoietan, haietako bat aitona-amonen belaunaldikoak; bederatzi seme-alaba, nerabeak eta urtebete eskasekoa barne)

Oso normala zen baserrietan hiru belaunaldi batera bizi zitea. Aitona-amona, osaba-izebaren bat zuekin bizi al da etxean? _____

Etxekoak dira, baina ez dira senideak:

Baserrian animaliak ezinbestekoak ziren. Bila itzazu argazkietan lau abere desberdin.

Behia

Ardia

Astoa

Zerria

ADI: behiak lanerako ere erabiltzen ziren; idiek baino indar gutxiago dute, baina gutxiago jaten dute eta trukean esnea eta umeak ematen dituzte; erreparatu goldaketan ari diren argazkiari, errapea ikusten zaie eta.

Lana: ura buruan, ura oinetan

Bilatu bi argazki:

Batean, emakumeek oinak uretan dituzte. Zertan ari dira? Arropa garbitzen

Bestean, ura buruan daramate. Zergatik uste duzu egiten zutela?

Iturri eta erreketako ura garbiago egoten zelako

Etxean urik izaten ez zelako

Etxeko ura hotzegi egoten zelako



Dena ez da lana:

- Musika:

Hainbat musikari agertzen dira argazkietan.

Batean, lau gizon alboka jotzen ari dira. Zer jotzen du andreak? Panderoa

- Kirola:

Euskal kirolak lanetatik datoz: segaz belarra moztea, eraikuntzarako harriak altxatzea, enborrak aizkoraz botatzea edo sokaz arrastaka eramatea... Ezagunena, ordea, joko hutsa da, lanekin batera zerikusirik ez duena. Badakizu zein den joko hutsa den kirol hori? Argazki batean topa dezakezu.

Pista: argazkian, saskiak jostailu bihurtu dituzte.

Pilota. Saskiekin erremontea, zesta punta eta beste modalitatetan aritzen dira.

5. ARIKETAREN HELBURUA

- Sentiberatasuna areagotzea ondarea mantentzeko garrantziaz
- Ondarea mantentzeko metodoen berri ematea

Lihoaren bitrinan, lurrean, zenbaki digitalak dituen pantaila txiki bat ikusiko duzue. Temperatura eta hezetasun maila neurtzen dute. Museoko beste toki batzuetan ere badaude halakoak.

Paperak, ehunak, koadroak, egurrak... baita metalak eta harriak ere, hondatu egiten dira temperatura eta hezetasun gehiegi edo gutxiegi badute. Horregatik sartzen dira bitrinetan, hobeto babesteko.

Izan ere, museo baten helburua objektuak iraunaraztea da, zuk orain ikusten dituzun bezala zure seme-alabek ere ikusi ahal izateko.



6. ARIKETAREN HELBURUA

Lanbidearen konplexutasuna adieraztea, zailtasunak zailtasun (basapiztiak, klima, familiarik eta bizilagunik gabe...), hurbileneko natur baliabideak al bait hobekien baliatzen ditu eta.

ARTZANTZA: ardien zaintza

Artzainek, eguneroko lanean, gazta egiteko eta artileaz baliatzeko tresnak erabiltzen zituzten.

ARTILEA = ARDI ILEA Artaziak = ardi-guraizeak

Hauxe da ardiei ilea mozteko artazi mota bat; marraztu bestea.



*“Gure guraizeen”,
papera, oihala eta
abar ebakitzekoan
antzekoak dira.*

Bi objektu hauen izena idatzi, eta azaldu zertarako erabiltzen ziren:




Izena: Garranga
Erabilera: Zakurrak
otsoen erasoetatik
babesteko, lepoan
hozka egiteko joera
dute eta.



Izena: Iragazkia
Erabilera: Esnea
xaborretatik iragazteko,
inbutuan osinak edo “ile-
dun” bestelako belarrak
sartuta.



Artzainek edalontziak, koilarak eta bestelako tresnak egiten zituzten, eskura zeuden lehengaiak (adarra, zura...) erabiliz. Lotu gezien bidez objektuak, izenak eta eginda dauden materialak.



Aukeratu zure gustuko beste objektu bat eta esan zerezkoa den:



7. ARIKETAREN HELBURUA

- Erraza dirudien prozesu baten konplexutasuna nabarmen uztea
- Tradizioa dinamikoa dela agerian uztea: materialak aldatu dira (erosoago, merkeago, garbiago); baina gazta egiteko erak berdintsu dirau, eta gaztagintza gora doan sektorea da, hain zuzen funtsezkoari eutsi diolako: esnearen kalitateari (arraza eta larreak) eta egiteko prozesuari.

GAZTAGINTZA

Artzainek ardiak jezten dituzte gazta egiteko. Aspaldian, tresna hauek erabiltzen zituzten.



Kaikua



Zumitza



Oporra



Malafsa



Iragazkia



Esnarria



Gazta - prentsa



Txurka




Abatza



Lot ezazu objektu bakoitza bere erabilerarekin, eta idatz ezazu izen osoa:

1. **KAIKU A** 1. Helduleku bakarreko zurezko ontzia, **ardia jertzeko**.
2. **OPORRA** 2. Zurezko ontzi txikia, helduleku bakarrekoa, **esnea edateko**.
3. **MALATS A** 3. Esnea **irabiatzeko** tresna.
4. **ABATZ A** 4. Bi heldulekuko zurezko ontzia, **esnea** eta **gatzagia nahasteko**.
5. **ZUMITZA** 5. Gaztari **forma emateko** moldea
6. **TXURK A** 6. Zurezko bastidorea, zumitzeko esne **gatzatuari gatzura ateratzen uzteko**.
7. **ESNARRI A** 7. Esnea **berotzeko** harria.
8. **GAZTA-PRENSA** 8. Gaztak **estutzeko** tramankulua.
9. **IRAGAZTI A** 9. Osina edo beste belarrak jarrita, **iragazteko** osina.




ARTZAIN-ZOPA: gazta egiteko aurreko orrian aipatzen diren zortzi objektuen izenak topa itzazu.











GAZTAREN ERREZETA: Hemengo ordena jarraituz, hurrengo orrietan, itsatsi irudiak koadroetan:

1. Ardia jetzi, **kaikua** erabilita.
2. Berotu **esnarriak** sutan.
3. Esnea kaikuan irakin, berotutako harriekin.
4. **Abatzean** esnea isuri, iragazita; gatzagia gehitu.
5. Abatzean, gatzagia eta esnea **malatsarekin** nahastu.
6. Esne gatzatuzko **zumitza** txurkaren gainean jarri, gatzura ateratzeko.
7. Gaztak prentsatu, gogortzen has daitezten.
8. Gaztak apaletan ontzen utzi.







8. ARIKETAREN HELBURUA

- Baserri giroaren eta kaletar giroaren arteko elkarbizitza azaldu, biek gizarte bakarra osatzen baitute.
- Baserriaren inguruan lanak askotarikoak eta konplexuak direla azaltzea.
- Gauzak dagozkien testuinguruan ulertzea: funtzio zehatzak betetzen dituzten lanabes edota baliabideak dira.

NEKAZARITZA: nekez aritzea

Nekazaritza hitzaren baitan hainbat lan biltzen dira. Izan ere, makina bat lan egin behar da lurra iraultzetik janaria mahairatu arte:

- Lehenik eta behin, lurra prestatu: goldatu, aretu, aitzurtu...
- Gero, erein (garia, artoa, patata...) edo landatu (aza, porrua...) eta hazi ahala zaindu: belar txarrak kentzeko jorratu, animalietatik babestu...
- Azkenik, uzta bildu eta urte osoan iraunarazteko prestatu: eultzi, aletu, lehortu...

- Objektu hauetarik, asma ezazu zein den goldatzeko, zein jorratzeko, zein segatzeko:



Jorratzeko: **jorraia, aitzurra**

Segatzeko: **sega, igitia**

Goldatzeko: **goldea, laiak, lauortza**

- Lurra iraultzea oso lan gogorra da, gaur egun makinaz egiten dena. Ez hain aspaldi, eskuz edo abereen laguntzaz egiten zen. Asma ezazu zein zen gizakiek zuzenean erabilitako tresna eta zein abereek arrastaka erabilitakoa:



Laia: **Eskuz**



Goldea: **Abereekin**

- Bi objektu hauek arretaz begiratu. Zertarako balio dute?



- Ereiteko
- Garia jotzeko
- Garia ebakitzeko

- Objektu honen izena KAXOLETA da. Badakizu zertarako erabiltzen zen?



- Belarra bertan gordetzeko
- Garia ebakitzerakoan beste eskua babesteko
- Zapata modura jantzeko



9. ARIKETAREN HELBURUA

- Baserriaren inguruan lanak askotarikoak eta konplexuak direla azaltzea.
- Gauzak dagozkien testuinguruan ulertzea: funtzio zehatzak betetzen dituzten lanabes edota baliabideak dira.

- Erreparatu honi. Segalariak gerrian zintzilik darama belarra mozten duenean. Zertarako erabiltzen duela uste duzu?




- Segaren ahoa zorrozteko
- Janaria bertan eramateko
- Mozten duen laborea edo belarra bertan gordetzeko
- Ados ez bazaude, zure ustez zertarako den zeuk idatzi:

Arraitza edo segarria (sega zorrozteko harria) bertan eramateko. Bustita eramaten zen, hobeto zorrozteko

- Baserriko abereetatik gauza asko lortzen zen: ilea, larrua, haragia, esnea, arrautzak... bai eta lan-indarra ere.

Ondoko labirintoan, eraman ezazu abere bakoitza dagokion zereginera.



10. ARIKETAREN HELBURUA

Museoa gaiak elkar lotuta dauden diziplinarteko kultur gunetzat jotzea: San Telmo gizarte museo bat da.

BASERRIA, ARTE BILAKATUTA I

Koadro honetan agertzen den lanabesa museoko beste erakustareto batean dago. Area du izena, eta goldatu ondoren lur zokorrak txikitzeko balio du.

Baserritarrak gidatzen du; baina zeinek darama arrastaka area? Aukera ezazu azpiko hiru irudien artean izan litekeena. Baserritarrak berak ematen digu pista, eskuan akui-lua dauka eta:

San Telmo Museoa

Alejandro Iturreta eta Artola (1906)



Alejandro Iturreta y Artola (1906)



Joaquín Sorolla (1918)



Ignacio Iriarte (1621-1685)



* Asmatzen ez baduzu, jakin ezazu ondoko koadroan duzula erantzuna; beste proposamenak ere gustuko badituzu, goiko erakustaretoan ikus ditzakezu.



11. ARIKETAREN HELBURUA

Denbora eta espazioa kontzeptuak lantzea: testuinguruak agintzen du elementu batzuk egokiak diren ala ez erabakitzeko tenorean.


BASERRIA, ARTE BILAKATUTA I

- Koadro honetan euskal paisaia tipikoa agertzen da.




Darío de Regoyos (1908)

- Zure ustez, irudi hauetatik zeintzuk ez lirateke egokiak halako paisaian?



Dinosaurioa



Txerria




Erromatarra



Eskimala



Baserritarra



Pinudia



12. ARIKETAREN HELBURUA

Denbora eta espazioa kontzeptuak lantzea: testuinguruak agintzen du elementu batzuk egokiak diren ala ez erabakitzeko tenorean.

BASERRIA, ARTE BILAKATUTA II

Begiratu arretaz koadro hau. Bila ezazu aretoan eta bere titulua idatzi. **Baserritarra, suilarekin**

Mauricio Kaperotxipi (1922)



Zure ustez, non bizi da emakume hau?

Baserrian Hirian

XX. mendeko 30eko hamarkada arte, ura ez zen etxe guztietara iristen, baserri guztietara hain gutxi

Andrea etxetik gertu dagoela uste duzu?

Bai Ez

Zergatik?

Iturriak erreketatik hurbil edo mendietan egon ohi zirelako.

Zer darama buruan? Idatzi objektu honen izena (baserriko sukaldean ikus dezakezu, beste areto batean):

Suila edo ferreta (buztinezkoa pegarra deitzen da, eta hura ere buruan eramaten zen)

Zertarako darama?

Ura etxera eramateko: ura eta argindarra etxean bertan edukitzeak ezin hobeto erakusten du nolako aldea dagoen duela zenbait belaunalditakoen eta gure bizimoduaren artean.



13. ARIKETAREN HELBURUA

- Behaketa eta alderaketa metodo deduktibo gisa lantzea
- Artearen irakurketa sakonagoa egitera gonbidatzea, azal hutsetik harago
- Baserriko bizimoduaren lana eta soiltasuna nabarmen uztea, hain zuzen atsedenaldirian islatzen dena

BASERRIA, ARTE BILAKATUTA II

Bila itzazu bi koadro hauek. Biek eszena bera irudikatzen dute: hamaiketakoa, atsedena lanaldian. Antzekotasunak eta desberdintasunak topa ditzakegu:

Jenaro Urrutia Oleran (1893-1965)



Ignacio Zuloaga (1870-1945)



- Antzekotasunak:
 - Janzkeran: astegunekoak ala igandekoak?
Astegunekoak
 - Jan-edanean: ugari ala urri?
Urri: gartxu jaten dute, indarrak berritzeko baino ez
 - Bertako janak ala kanpokoak?
Baserrian bertan lortutakoak: ogia, fruta...
 - Tresneria: bietan dauden bi ontzi motak seinala itzazu:
edalontziak eta pitxerrak (euskal zeramika tipikoaren “amantal” zuria eta guzti)
- Desberdintasunak:
 - Adina: **gazteak eta heldu-helduak**
 - Sexua: **neska-mutilak eta gizonak**
 - Jarduera: **batzuk, fruta bilketan**; eta besteak? Erne begiratu “makilari”. Badakizu zer den?

Pista: muturrean ezten bat dauka: nolako abereak xaxatzeko?

Itzainak dira, “akuiluak” salatuta: gurdiaekin garraioan, lur goldaketan edo halako lan gogorrean dihardute.



14. ARIKETAREN HELBURUA

Baserri giroaren eta kaletar giroaren arteko elkarbizitza azaldu, biek gizarte bakarra osatzen baitute.

Baserri gehienak hirietatik hurbil egoten dira. Izan ere, baserriko produktuak, bertan kontsumitzeko ez ezik, kaletarrei saltzeko ere egiten ziren, eta gaur egun ere hala da.

- **Baserrian:** bertakoak ez dira familiakoak soilik; abereak ere “etxeakoak” dira eta urte osoan bazka eman behar zaie. Horregatik, baserriaren lursail handienak belarra eta artoa lortzeko dira, ez baratze edo fruta-arbola.

Augusto Comas y Blasco (1915)



Nola gordetzen zen belarra duela gutxi arte?

Pista bat: bilatu goiko aretoan koadro hau eta hobeto ikusiko dituzu hiru “biltegiak”.

Belarra lehortu eta kanpoan metatzen zen

Nola dute izena belar lehorrezko multzo horiek?

Metak; gaur egun arraroak dira, belarra lehortu gabe plastikozko “boletan” pilatzen da eta.

- **Kalean:** kaletarrak ezin baserritarrik gabe bizi, eta baserritarrik ezin kaletarrik gabe bizi.

Ramón Zubiaurre (1917)



Nola dakigu irudiko emakumeak baserritarrik direla?

Aurpegiarengatik Dauzkaten produktuengatik

Zertan ari dira?

Fruta saltzen: sagarra, mahatsa... udazkeneko eszena dirudi

- Egon al zara inoiz halako merkatu batean? Zer eros daiteke halakoetan?

Tokian tokiko produktuak: barazkiak, frutak, gaztak, hestebeteak (Euskal Herrian gutxiago), eta abar.

- Bazenekien Bretxako merkatuan, Donostiako ospetsuenean, baserritarrik direla ekoizleak eta saltzaileak?










15. ARIKETAREN HELBURUA

- Euskal egutegi tradizionala ezagutu.
- Hilabete bakoitzaren izenaren jatorria aztertu.

EUSKAL EGUTEGI TRADIZIONALA

Osa ezazu hurrengo orrian duzun egutegia, hemengo irudiak erabiliz eta karratu bakoitzaren gainean hilabetearen izena idatziz.




1. URTARRILA



Ilbeltza
(iluna nagusitzen delako)

2. OTSAILA




Otsaila
(otsoena delako)

3. MARTXOA



Epaila
(mahastiak epaitu, hau da, inausten direlako)

4. APIRILA



Jorraita
(garia jorratzen zelako)

5. MAIATZA



Loraila edo hostaila
(lore eta hostoena delako)

6. EKAINA




Garagarrila
(garagarrarena eta ekiarena delako)

7. UZTAILA




Uztaila
(gari uzta biltzen delako)

8. ABUZTUA



Agorrila
(agortea edo lehortea delako)

9. IRAILA




Iraila
(iratzea biltzen zelako)

10. URRIA




Urria
(hurrak edo beste fruitu lehorrak biltzen direlako)

11. AZAROA



Azila
(gari hazia ereiten delako)

12. ABENDUA



Lotazila
(hazia lurpean "lo" dagoelako)



Gida honetan azaltzen diren argazkiak eta artelanak San Telmo Museoko bildumakoak dira. Haien inguruan argibide nahiago nahi izango bazenu, jar zaitez gurekin harremanetan: santelmo@donostia.org, 943 48 15 80.

Mila esker.

